

EAEn, 2010eko lehen hiruhilekotik bigarrenera bitarte, etxebizitza erabilien metro karratu erabilgarriaren eskaintza-prezioa % 1 igo da; etxebizitza berri libreen eskaintza-prezioa, aldiz, % 0,7 jaitsi da.

Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,1 hilabeteetan dago.

2010eko bigarren hiruhilekoan etxebizitza erabiliaren metro karratu erabilgarriaren batez besteko prezioak —Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Higiezin Eskaintzari buruzko Estatistikak eskainitakoak— adierazten duenez, aurreko hiruhilekoan baino % 1 handiagoa da, baina duela urtebete baino % 1 txikiagoa; 3.870 eurotan dago une honetan.

Araban higiezin agentziek eskainitako etxebizitza erabiliaren metro karratua % 0,4 bakarrik jaitsi da, baina % 2,5 txikiagoa da 2009ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Bizkaian % 1,2 igo da 2010eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, baina % 7ko jaitsiera metatzen du azken 12 hilabeteetan. Bestetik, Gipuzkoan % 0,4 jaitsi da bigarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoaren aldean, eta urteko hazkundera % 0,6 izan da.

Donostian, etxebizitza erabilien metro karratuko prezioa % 4,6 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, eta Gasteizen ia-ia ez da aldatu (% -0,1). Bilbon, aldiz, % 6,1 igo da. Urteko bilakaerari begiratzen badiogu, Donostiak eta Gasteizek hazkunde negatiboa metatu dute, % 4,5 eta % 2,5, hurrenez hurren. Bilbon aldiz, hazkundea positiboa da, % 5,9 handiagoa.

Higiezin agentziek bitartekari-lanak egiten dituzte, eta, aditzera ematen dutenez, etxebizitza erabilien prezioak batez beste % 19,8 inguru jaitsi behar dituzte saltzaileek salmenta-eragiketak gauzatzeko. Ehuneko hori ehuneko 1,3 puntu igo da azken hiru hilabeteetan, eta ehuneko 5,9 puntu aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Etxebizitza berri librearen metro karratuaren eskaintza-prezioa (3.969 euro) % 0,7 jaitsi da hiruhilekoan, eta urtean % 1,8ko beherakada metatu da.

Eskaintzako etxebizitza berri librearen metro karratuaren prezioa Araban % 0,1 bakarrik jaitsi da 2010eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta azken 12 hilabeteetan % 1,2ko hazkundea metatu da. Gipuzkoan, metro karratuaren


prezioa % 0,7 jaitsi da azken hiru hilabeteetan, baina % 1,6ko hazkundera metatu du azken urtean. Bizkaian, aldiz, % 1 murriztu da azken hiruhilekoarekin alderatuta, eta azken hamabi hilabeteetan % 3,8 galdu da.

Etxebizitza librearen metro karratuaren prezioa Donostian % 4,6 jaitsi da azken hiruhilekoan

Bilbon, etxebizitza librearen eskaintza-prezioak % 6,1 igo dira, eta Gasteizen, aldiz, ia ez dira aldatu (% -0,1). Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza librearen metro karratuaren eskaintza-prezioa % 4,5 jaitsi da Gipuzkoako hiriburuan eta % 2,5 Gasteizen, hurrenez hurren. Bestetik, Bilbon % 5,9ko hazkundera erregistratu da aldi berean.

Enpresa sustatzaileek eta higiezin agentziek etxebizitza librearen guztizko prezioa 11.800 eurotan jaitsi dute azken 12 hilabeteetan, hau da, % 3,5.

Etxebizitzaren m² erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2010. Euskadiko AE. Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezin eskaintzari buruzko estatistika.

ETXEBIZITZA TIPOA: etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean sustatutakoa, akabera-maila "normala" eta 60-90 m²-ko azalera duena.

Sustatzaileek eta higiezin agentziek eskaintako etxebizitza berri librearen batez besteko prezioa 323.000 eurotan egon da 2010eko bigarren hiruhilekoan, eta horrenbestez aurreko hiruhilekoan baino % 2,8 txikiagoa da, eta % 3,5 txikiagoa azken hamabi hilabeteak kontuan hartuta.

Bigarren eskuko etxebizitzaren guztizko batez besteko prezioa —318.900 euro—, batez beste etxebizitza berri librearena baino 4.100 euro txikiagoa dena, % 1,8 igo da azken hiruhilekoan, baina % 0,8ko beherakada metatu du azken 12 hilabeteetan, hain zuzen ere 2.600 euroko beherakada.

Arabian, etxebizitza libreen eta etxebizitza erabilien eskaintza-prezioak murriztu dira azken hiruhilekoan, % 1,5 eta % 1,3, hurrenez hurren. 2009ko bigarren

hiruhilekoaren aldean, etxebizitza libre berrien eta etxebizitza erabilien prezioak % 0,5eko eta 0,1eko igoera metatu dute, hurrenez hurren. Lurralde horretan, etxebizitza librearen eta etxebizitza erabilien batez besteko prezioa 291.000 euro eta 288.100 euro da, hurrenez hurren.

Bizkaian, etxebizitza librearen eskaintza-prezioa 315.700 eurora igo da laugarren hiruhilekoan, azken hiru hilabeteetan % 2,3 eta azken urtean % 5,6, hurrenez hurren, jaitsi ondoren. Etxebizitza erabiliaren prezioa % 1,9 igo zen lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta azken hamabi hilabeteetan, aldiz, % 6,3ko beherakada metatu du; egungo batez besteko prezioa 302.200 eurotan dago.

Gipuzkoak eusten die etxebizitza-prezio handienei, 353.300 euro etxebizitza libre berrietarako eta 390.700 euro bigarren eskuko etxebizitzetarako. Etxebizitza libre berrien prezioa % 0,8 jaitsi da azken hiru hilabeteetan; etxebizitza erabilien prezioa, aldiz, % 1,9 igo da. Azken hamabi hilabeteetan, ehunekoak errepikatu dira: etxebizitza librearen prezioa % 0,8 jaitsi da eta aldiz bigarren eskukoena % 1,9 igo da.

Etxebizitza berri librearen prezioa 30.200 euro igo da Bilbon azken hamabi hilabeteetan. Donostian eta Gasteizen, aldiz, 9.500 eta 5.400 euro jaitsi da, hurrenez hurren.

Higiezin agentziek eta sustatzaileek azken hiruhilekoan % 1,7 murriztu dituzte etxebizitza berri librearen salmenta-prezioak Gasteizen eta % 2,1 Donostian, hurrenez hurren. Bilbon, aldiz, etxebizitza berri librearen prezioa % 7,6 igo da. Batez besteko prezioa honako hau da hiriaren arabera: Donostian 447.200 euro, Bilbon 426.700 euro, eta Gasteizen 308.700 euro. Azken 12 hilabeteetan, Gasteizek eta Bilbok % 3,6ko eta % 2,6ko murrizketa metatu dute, hurrenez hurren, eta Bilbon, aldiz, % 7,2 igo dira prezioak.

Etxebizitza erabilien salmenta-prezioa % 1,2 murriztu da azken hiruhilekoan Gasteizen, eta Bilbon eta Donostian, aldiz, % 1,8 eta % 0,3 igo da, hurrenez hurren. 2009ko bigarren hiruhilekoaz geroztik, % 6,3ko beherakada sumatu da Donostian —32.000 euro gutxiago batez beste—, eta % 1,1 —3.300 euro gutxiago— Gasteizen. Bilbon, aldiz, batez besteko prezioa % 5,8 handitu da, hau da, 20.800 euro gehiago.

Azken urtean, higiezin agentziek eta erakundeek eskaintako alokairuko etxebizitzaren eskaintza % 15,3 igo da

Alokairuko etxebizitza-eskaintzaren bolumena —librea eta soziala— % 11,6 igo da azken hiru hilabeteetan, eta 15,3 azken urtean; kopuru hori eskaintzaren guztizko etxebizitza kopuruaren hamarretik bat baino gehiago da (% 11,6).

Etxebizitza librearen batez besteko alokairu-errenta 892,3 euro da, aurreko urteko azken hiruhilekoan baino % 0,4 gehiago, eta, 2009ko lehen hiruhilekoa erreferentzia gisa hartuta, prezioak % 3,3ko beherakada metatu du.

Etxebizitza babestuen —BOEak eta etxebizitza sozialak— alokairuko batez besteko errenta 209,9 euro da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,9 gehiago eta hamabi hilabete lehenago baino % 6,9 gutxiago.

Sektore babestua —BOEak eta etxebizitza sozialak— saltzeko eskaintzen diren sei etxebizitzatik bat inguru ari da kokatzen merkatuan (% 16,8), batez beste 112.700 euroko prezioan (1.470 euro metro karratu erabilgarri bakoitzeko). Etxebizitza horien batez besteko prezioa ia ez da aldatu azken bi hiruhilekoekin alderatuta (% 0,2 gehiago) eta 2009ko hiruhileko berarekin konparatzen badugu %2,8 igo da.

Higiezin agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,1 hilabetea kokatzen da, duela urtebete baino ia bi hilabete gutxiago.

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2010ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Euroak		Euros	Var %	Euros	Var %
Euskal Autonomia Erkidegoa	B.O. berria/Etxeb. Soziala	1,470		3.0	0.2	39.6	2.8
	Berria librea	3,969		-28.7	-0.7	-72.0	-1.8
	Erabilia	3,870		39.6	1.0	-37.8	-1.0
Araba	Berria librea	3,487		-2.1	-0.1	41.9	1.2
	Erabilia	3,539		-15.6	-0.4	87.3	2.5
Bizkaia	Berria librea	3,964		-41.6	-1.0	-154.8	-3.8
	Erabilia	3,657		41.8	1.2	-277.1	-7.0
Gipuzkoa	Berria librea	4,291		-31.2	-0.7	67.3	1.6
	Erabilia	4,744		-16.8	-0.4	28.4	0.6
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) MOTAKO ETXEBIZITZA	3,419		130.9	4.0	8.9	0.3
Berria librea	Gasteiz	3,723		-2.4	-0.1	-94.3	-2.5
	Bilbo	5,442		313.3	6.1	303.2	5.9
	Donostia	5,131		-249.5	-4.6	-241.4	-4.5
Erabilia	Gasteiz	3,592		-18.9	-0.5	14.6	0.4
	Bilbo	4,252		20.9	0.5	-118.6	-2.7
	Donostia	5,536		-19.7	-0.4	-430.4	-7.2
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	B.O. berria/ Etxeb. Soziala	112.7		-0.1	-0.1	-0.1	-0.1
	Berria librea	323.0		-2.8	-0.9	-11.8	-3.5
	Erabilia	318.9		5.6	1.8	-2.6	-0.8
Araba	Berria librea	291.0		-4.4	-1.5	1.6	0.5
	Erabilia	288.1		-3.7	-1.3	0.3	0.1
Bizkaia	Berria librea	315.7		-2.3	-0.7	-18.8	-5.6
	Erabilia	302.2		5.7	1.9	-20.2	-6.3
Gipuzkoa	Berria librea	353.3		-2.8	-0.8	-3.0	-0.8
	Erabilia	390.7		7.5	1.9	7.5	1.9
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Guztizkoa	28,495	100.0	73	0.3	2,293	8.8
	B.O. Berria/Etxeb. Soziala	4,246	17.8	-670	-13.6	-201	-4.5
	Berria librea	4,801	19.4	-229	-4.6	-511	-9.6
	Erabilia	16,149	51.2	1,213	8.1	2,567	18.9
	ziala/Librearen Alokairua	3,300	11.5	-241	-6.8	439	15.3
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	209.9		2.0	0.9	-15.5	-6.9
	Librea	892.3		3.6	0.4	-30.3	-3.3
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR		8.1		-0.5	-5.9	0.2	2.8
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEKOA. ETXEBIZITZA ERABILIAK		%		Aldea portzentajezko puntutan		Aldea portzentajezko puntutan	
Euskadiko AE		19.8		1.3	7.0	5.9	43.0
Araba / Álava		10.7		-0.8	-7.3	-3.0	-22.0
Bizkaia		14.5		1.9	14.8	0.0	0.3
Gipuzkoa		29.6		1.1	3.7	16.5	126.2

- (1) *Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean sustatutakoa, akabera-maila "normala" eta 60-90 m2-ko azalera duena.*

Ohar metodologikoa

2009ko laugarren hiruhilekoari buruz aurkeztutako datuak hiruhilekoaren amaieran elkarrizketaturiko 119 higiezin agentzietatik eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak dituzten 171 sustatzaileetatik atera dira. Nolanahi ere, eskaintako prezioak dira, eta ez jada gauzatutako salmenta-prezioak. Honela kalkulatu dira prezioak, eskaintza eta alokairuak: laugarren mailako batez besteko mugikorrek baliatuz, ausazko aldaketak gutxiagotzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>

WEB: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/es/>